

HARRIAK ALDARATZAT, HARRI-GIZAKITZAT, HILARRITZAT ETA OPARITZAT

BARANDIARAN'GO JOXEMIEL

I

Aldare-harriak, elizetan ezezik, badira landetan ere aldaratzat erabilitako edota erabiltzen diran harriak.

Hala omenda Amezketa-Igoingo harkaitza, metro bat luze, beste bat zabal eta lurraz gaindik metro ta erdi dana. Andra-Mari haren gainean agertu zala eta, bertan oinaska bat markatua utzirik, Arantzazura juan zala diote. Zerbait galdu duanak, oiñaska hortan txanpon bat sartzen du, galdu dana Andra-Marik ager dezaion.

Aralarmendiko bide baten egalean, Igaratzako arratetik urbil, ageri da harkaitz handi bat. Hemen ere Andra-Mari agertu omentzan. Aterbe bat egitea eskatu. Bainan alperrik. Orduan, harkaitz-gainean oinaska bat utzita, Arantzazura aldegin. Artzai batek abereen bat galtzen badu, txanpon bat edo beste oinaskan jartzen du, Andra-Marik lagun dezaion.

Hauek bezalako aldara izango zan Busturian harkaitz bat Bizkaiko jaunak, XIV gizaldian, aldaratzat zeukatena: bere gainean opariak —behien adagiak— Bizkaiko ireluari eskaintzen zizkio-ten (1).

Aralar-San Migelgo elizan bazan harri landu bat, zoruan zabal. Bere gainean egoten ziran aurra nahi zuten emakumeak. Azke-neko elizberritzaileak (orain dela amabostbat urte gutxi gora-bera) kendu zuten.

Arretxinagako harkaitzak Markinako elizaño batean daude. Haietako bitan San Migelen eta Santa Poloniaren aldarak ageri dira.

(1) BARANDIARAN, J. M., *Diccionario Ilustrado de Mitología Vasca*, 185 horrialdean (Bilbao, 1972).

Behauen azpiko ibilbide estuan igarotzen diran gazteak urte barruan ezkonduko dirala esan ohi dute (2).

Aizkorri-Arriurdin izeneko tokian, Zegamatik Arantzazura bi-dean, *Amabirjinaren jarlekua* izeneko arkaitz bat dago. Andik Arantzazura -dijoatzen errromesak, bertan jarrita, Salbea esaten dute (3).

Izurako oihana izeneko zuaiztian (Izura eta Orsanko herrien mugan) ba-da iturri bat, *Andre-Dena-Mariaren-iturria*. Harkaitz batean sortzen da. Hara dijoatzen errromesak harkaitz hartan jartzen diruzte, opari bezala, lorak, buruko ileak eta beste, esker-agiritzat edo zin-eskainitzat, uraren bidez Andre Marik sendatu dituala-ta (4).

Arabako Korron, Faidon, Albainan, Lañon, Urarten, Makinezen eta Ogabeko harkaitzetan sakonduak ageri dira oraino aterbe asko. Hauen artean sei eliza eta gainetikoak hilherri eta bizilekuak. Elizetan, aldare-harri ondo landuak (5).

Usurbilgo San Estebanen elizañoan ba-da harluze bat zutik. Aurrealdean zulo bat du. Zuloan burua sartuta Sinisbidea esateko ohitura dute hara igotzen diran lagun askok. Harri horren zuloa bezalakoak badaude Orioko San Juan elizañoan, Zegamako Sanpedrokoan, Ernani-Zikuñagakoan, Santa Marina Asteasukoan eta Aralarko San Migelgoan. Jentilarotik datortzkgun aldareak zulo horiek, nere ustez.

II

Harri bihurturik daudelazko gizakirik asko ez degu Euskalherrian asko ezagutzen. Bainan badira banaka batzuek: bat Bidarrayn eta hiru Los Arcos herriaren inguruan.

Harpeko Saindia edo *Saindua* du izena Bidarrayko Zelarburu mendian dagon harpe bateko troskaharriak. Badu gutxiasko giza-kiaren egitea. Lurralde haietan esan ohi danez, artzai-neskatx bat galdu omentzan eta ondoren Iuskadi-mendi inguruan gauero ots hauek entzuten omen ziran: *ago ago!* Gau batean aidez-aide argi

(2) **Eusko-Folklore** (1923).

(3) **Eusko-Folklore** (1923).

(4) BARANDIARAN, J. M., **Obras Completas**, IV, 50-51 horrialdeetan.

(5) BARANDIARAN, J. M., **Obras Completas**, VIII, 241 horrialdean; XVI, 229 horrialdea.

bat agertu omentzan eta Zelarburuko harpean sartu. Urrengo egunean inguruko lagunek hara igo eta han atxeman artzai-neskatxaren iduria edo bera harri biurtua: harpeko saindia. Lagun asko, gaitzen sendatzea eskatuaz, hara juan ohi da.

Los Arcos herrian ba ziran, oraindik-orain arte, hiru arri luze zutik landa batean. Hiruek izen bera: *Morma*. Herri hartan esaunda hau zan: landa hartan lanean ari zirala ama bat eta bere hiru alaba; han inguruan zan elizañoko meza-ekzila entzun zutela; amak alabeai «guazen elizara» esan; alabeak etzutela juan nahi, eta bertan gelditu; amak madarikatu zituala esanaz: «harri biur-tuko al zerate»; ama elizara juan zala eta, meza ondoren, landara itzuli zanerako bere alabeak harri biurturik zeudela. Hauek omen ziran *Mormak*.

III

Ba dira han-hemen harluzeak hildakoen iduritzat edota hildakoen ezaugarritzat jarriak daudela dirudienak. Hala da Orozkon, Odoriaga izeneko mendian dagon arluze bat: *Araneko-harria*, hango trikuharriaren albo zutik. Herri hartan dago *Arane* basarria. Esaundak dionez, etxe hortako neskatx bat igo omentzan mendira beren ardiak etxeratzeko asmoan. Ustez eta denak bildu zituala, eramán omentzitian etxera. Bainan bizpa-hiruk huts egiten. Orduan berriro mendira igo. Han, Odoriagan, lainotan galdu omen, eta otsoak berari eraso eta jan. Gero bere etxeoak Odoriagako lepoan haren uzkinak arkitu eta bertan trikuharria eraiki: *Araneko-harria*, neskatx hilaren ezaugarri.

Horrelako esaundari lotuak badira harriak beste bi lekutan: Ezkaraitik gora dagon Larrea mendin bat, Eterna herriko neskatx baten iduria dalazkoa; Lazkau-Urbaandi mendin beste bat (hau hilarri biribila), han otsoak hil zuten *Amoskategi* baserriko neskatx baten ezaugarritzat jarria.

Aralargo *Ata* mendin dagon *Errolan-harria* ere baliteke hilarria izatea, Frankowskik dionez (6). Baita gure mendietan ageri diran beste harluze asko ere. Hauetako batzuek Aralarren bertan

(6) EUGENIUSZ FRANKOWSKI, *Estelas discoldeas de la Península Ibérica*, 139 hor. (Madrid, 1920).

daudenak: *Suspenzaitz Oiduegin, Jentilharri*. Arrataranen eta *Sal-taharri* Alotzan. Esaundak dionez, azkeneko honen aurrean jentil-lak gauaz, illargibetea, dantza egiten omentzuten, bakoitzak bere erraiñuarekin.

IV

Harria oparizat erabili izan da harpeetan, trikuharrietan, eli-zetan, elizañoetan, etxeetan eta zuaitzetan.

Zilbetin leize-ataken ondoan igaro direnak badute bertara har-ria jaurtikitzeko ohitura. Beste toki askotan ere berdin. Ataunen, harria leizera jaurtikitzean, esaten dute: «hau iretzat eta ni Jain-koarentzat». Dirudienez, harpeko ireluari bialtzen diote oparia.

Aralargo trikuharri bitan —Zineko-Gurutzekoan eta Obioneta-koan— behauen ondoan igaro ziren lagunak bertan harria jaurti-kitzeko ohitura zuten (oraindik ere bai zenbaitek), ustez eta egin-tza hori otoitzaren kidekoa dela. Otoitza ere —*Gure Aita*— egin ohi zuten *Obionetan* gu han azterketak egiten gebiltzala (1923'n urtean). Berdin egiten zuten, orain dela larogei urte, Zugarramur-diko artzaiak, inguruko trikuharri eta harrespil edo kromlechen ondotik igarotzean.

Lehenago garaietan Aralargo artzaiak, illargi betean, Gaztelue-tako zelaian dagon armorkorara harriak jaurtikitzen omen zitoz-ten, oraingoak diotenez.

Ubidegainen, Altxueta mendiaren garakoaldean, bide bat dago Madoztik San Migel izeneko santutegira dijoana. Antxe, bideon-doko zabalunetxo batean harmura bat ageri da. Inguruan diotenez, aspaldi batean Madozko apaizak asi omentzuen harripillaketa hu-ra. Oraindik ere Madoz-aldetik heldu diran askok, *Burnigurutze* izeneko tokian harria hartu eta Ubidegaineko armuran jartzen dute.

Muskaria eta Monkaio-inguruko landetan ere badira harmura batzuek, *Salbe* izenekoak. Haien ondoan igaro diran lagunak ber-tara botatzen dituzte harriak, *salbe* bat esanaz.

Urkiolako elizara eta Arantzazura harria eramateko ohitura bazuten lehenago erromesak. Oraindik ere Aralar-San Migelgo eli-zara Gaintzako eta Arruazuko erromesak eraman ohi dituzte har-

koskorak eta elizako harresien ondoan jarri edota barrungo eliza-
ñoako aldara-zuloan utzi.

Ujueko eta Xabierko elizondoetan dauden osiñetara, aurra nahi
duten emakumeak harkoskorak jaurtikitzen dituzte.

Araba-zelaiko herri batzuetan, landetan billatutako harrizko
aizkorak (lehen-gizakienak) etxeko atalburuan jartzen dituzte txi-
mist edo aidegaxtoa etxean sar ez dedin.

Toki batzuetan, Ipar-euskalherrian batez ere, zuaitz antzuen
lepoak harrikatzen dituzte, erbestetik hortarako ekartzen dituz-
ten harriak lepoetan jarri alegia, alea eman dezaten.

Hara bada hor gure herrietan harriak dituzten edo izan dituz-
ten zenbait eginkizun, jatorrak nahiz bitxiak.

Ataunen, 1983'go Urtarrilaren 11'n.